



Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko?



Uzt. 28 - Uzt. 29 2016

Kod. 166-16

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2016

Jarduera mota

Tailerra

Data

Uzt. 28 - Uzt. 29 2016

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Ahozko komunikazioa edozein adinetan irakatsia izateko uneak eta aukerak hamaika dira eskolan, ikasgelan. Hizkuntza ikasgai ez ezik, edozein arlotan agertzen da modu batean edo bestean ahozko komunikazioa. Eskolan hainbatetan ematen dituzte ikasleek gai baten inguruko azalpenak, ariketaren ebazpena eman dezaten eskatzen diegu, iritzia eman eta partekatzeko, sortzen ditugu egoerak asteburuko gertakizunak kontatzeko... Egoera horiek eraikitzea bezain garrantzitsua da egoera horietan ikasleek ahoz komunikatzeko dituzten gaitasun eta beharrak identifikatzea. Zenbateraino ezagutzen dituzte aurkezpen baten ezaugarriak, badute nahikoa hizkuntza-baliabide iritziak emateko, jendurrekotasuna kudeatzeko baldintza egokietan jartzen ditugu?... Tailer honetan aztertuko dugu ahozko komunikazioa irakas-gai bihurtzeko zein aukera ditugun eskolan. Aurkeztuko dugu zein diren eskolan ahozkoa lantzeko uneak. Une bakoitzeko aukera metodologikoak ere bai. Sakonduko dugu adibide praktikoetan: ahozkoa lantzeko proposamen didaktikoak eta ikasleen ahozko ekoizpenak plazaratu eta taldean aztertuko dira, baita irakasleen praktika onak ere.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2016-07-28

08:30 - 10:30 "1. Gure testuinguru soziolinguistikoa eta ahozko hizkuntzaren lanketaren arteko lotura. Diagnostikoa egin eta ikastetxean erabakiak hartzeko oinarritzko adierazleak"

Josune Zabala Alberdi Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea

10:45 - 12:45 "2. Egitetik lantzeraz: pizgarri batzuk egiten dugunaz jabetzeko."

Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea

13:00 - 13:30 "3. Azken hitzak goizeko tailerraz."

Josune Zabala Alberdi Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea

15:00 - 16:30 "4. Ahozko hizkuntza lantzeko uneak: 4.1. Egoera gidatuak: ahozko genero berezituak, errutinak eta sekuentzia didaktikoak."

Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea

2016-07-29

09:00 - 11:00 "4.2. Egoera autonomoak: ahozkoaren aldagai jakin bat lantzeraz bideratutako jarduerak eta jolasak."

Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea
Josune Zabala Alberdi Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea

11:15 - 13:30 "4.3. Egoera askeak: edozein elkarrekintzatan sortutako egoerak kudeatzeko praktika onak."

Josune Zabala Alberdi Soziolinguistika Klusterra - Ikertzaile eta formatzailea

Zuzendaritza



Josune Zabala Alberdi

Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria Eusko Jaurlaritzan. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 2002), Hizkuntzen aditu titulua eskuratua (Mondragon Unibertsitatea, 2005) eta Euskal ikasketetan doktorego programa eta ikerketa gaitasuna burutua (EHU, 2008). Lan ibilbidean, euskara eta bere irakaskuntzaren alorra landu du, batez ere: helduen euskalduntzean euskara irakasle eta trebatzaile (AEK eta udal euskaltegiak, 1999-2004); Euskara Biziberritzeko planetan aholkulari (Azpeitiko euskara patronatua, 2004-2005), eta Mondragon Unibertsitatean irakasle (HUHEZI fakultatea, 2004-2008 eta 2012-2014). Ikerketari dagokionez, HIJE taldeko (Hizkuntzaren jabekuntza eta erabilera) eta Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza saileko partaide ere bada, eta Soziolinguistika Klusterrean ahozkotasanari buruzko ikerketa eta formazio ezberdinak gauzatu ditu. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendari lanetan dihardu egun Eusko Jaurlaritzan.

Irakasleak



Olatz Bengoetxea Manterola

Soziolinguistika Klusterra, Teknikaria

Hizkuntza teknikaria eta ikertzailea Soziolinguistika Klusterrean. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 2012) eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Unibertsitate Masterra burutua (2019). Lan ibilbidean, euskara irakasle eta euskaraz mintzatzeko hainbat programetan parte hartu du. Horrez gain, hezkuntza ez konbentzionalen eta aisialdian hezitzaile eta dinamizatzaile lanetan aritu da haur eta gazteekin. Gaur egun, proiektu arduraduna da Soziolinguistika Klusterrean ahozko hizkuntzari buruzko hainbat egitasmo eta trebakuntza ikastaroetan. 2014az geroztik egiten du lan bertan. Eskolan euskararen ahozkotasanarekin lotutako hainbat ikerketatan dihardu.

Matrikula prezioak

| MATRIKULA | 2016-05-31 ARTE | 2016-07-28 ARTE |
|---|------------------------|------------------------|
| OROKORRA | 60,00 EUR | 70,00 EUR |
| MATRIKULA MURRIZTUA | 35,00 EUR | 46,00 EUR |
| IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA | 35,00 EUR | 46,00 EUR |
| MATRIKULA EXENTZIOA | 20,00 EUR | 20,00 EUR |
| PG 166-16 | 0 EUR | - |
| MATRIKULA BEREZIA | - | 35,00 EUR |

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa